# 2023-24 MEMORIA  2024ko ekaina

**MEMORIA EGITEKO PROZEDURA ETA LAN-METODOLOGIA:**

Memoria hau egiteko, irakasleek banaka zein taldeka (zikloka, arloka, mailaka…) lan egin dute. Horrekin batera, aurrera eraman diren ekintzak eta jarduerak txantiloi, inkesta, akten… arabera hausnartu eta ebaluatu dituzte.

Familiei ere, haien balorapena eskatu diegu zenbait atalen ebaluazioa egin ahal izateko.

Egindakoaren emaitzak talde handian aztertu dira; zuzendaritza taldeak datu horiek guztiak, bildu ditu eta 2023-2024 ikasturteari dagokion memoria dokumento hau sortu eta aurkeztu du.

Para la elaboración de esta memoria el profesorado ha trabajado tanto individualmente como en grupo (por ciclos, áreas, niveles...). Se han evaluado las acciones y actividades llevadas a cabo, utilizando plantillas, encuestas, actas...
Los resultados han sido recogidos por el equipo directivo, que ha elaborado y presentado la memoria correspondiente al curso 2022-2023.

Las familias también han tenido la oportunidad de valorar diversos aspectos y funcionamiento del centro.

# 1.- IKASTOLAKO FUNTZIONAMENDUA:

**Irakasleentzat – Ikastolako funtzionamendua:** irakasleei pasatutako galdetegiaren emaitzak (22 irakasle gara eta 17 erantzun jaso ditugu)

**1.- EGUTEGIA eta DATA AIPAGARRIAK:** Egutegia adosteko prozesuaren balorazioa (irakasleok gutxiengoak proposatu eta OOG-n datak zehaztu)  Copiar

17 respuestas




**Hobetzeko proposamenak:**

Ekaineko zubia (Gallartako Jaiak) udako oporretatik oso gertu dago eta ekainean lanez gainezka gabiltza, beraz, zubi hori saihestuko nuke.
Aproposa ikusi nuen egutegiaren adibide ezberdinak aukeran ematea
Ez daukat hobetzeko proposamenik
Egutegi bateratu bat eramaten jarraitu
Irakasleok aurretik adostastutako egutegia eraman OOG-ra

**2.- ORDUTEGI ARRUNTA (goiz-arratsaldez) eta ORDUTEGI JARRAIA (goizez bakarrik)**

Ordutegien egokitasuna eta egun berezietako ordutegiak (gabon jaialdian, inauterietan eta ekaineko jaialdietan ordutegi jarraia)

17 respuestas




**Hobetzeko proposamenak:**

Bederatzietan hastea proposatuko nuke, behintzat iraileko lehenengo astean ordutegi murriztua izateko. haur Hezkuntzako umeentzat oso gogorrak dira lehenengo egunak eta hasieratik lau eta erdiak arte egotea , batez ere, jantokian gelditzen direnentzat gogorregia eta luzeegia egiten zaie.
Ez daukat hobetzeko proposamenik
Irailean zein ekainean umerik gabeko egun gehiago izatea dana ondo prestatzeko (goizago sartuta goizetan?)

**3.- SARRERAK eta IRTEERAK: goizez, eguerdian, arratsaldez eta patio orduan.**
Egokitasuna baloratu

17 respuestas




**Hobetzeko proposamenak:**

Patioko ordua amaitzen denean denak batera goaz gelara eta kaos apur bat sortu egiten da eskolako sarreran eta pasabideetan. Bakoitzak bere tutorearekin joateko proposatzen dut, lehenengo 2-3-4 urtekoak mailakatuta sartu eta azkenak 5 urtekoak.

Ez daukat hobetzeko proposamenik
Patio ordutik (goizean zein arratsaldean) korrika eta zarataka sartzen dira
Irakasleekin batera egitea, bai sarreral bai irteerak, ordenatuagoak izateko.
behatokian hainbatetan agertzen denez gai hau ez dugula asko zaintzen, kurtso hasieran ondo azaldu beharko genuke irakasleon inplikazioa lortzeko.

**4.-GAIXOTASUNAK / BOTIKAK:** Sarean eta zerrendetan dagoen informazioa. Botikak hartzeko protokoloa (zuzendaritzan gorde eta han hartu).

17 respuestas




**5.-GERTAERA BEREZIAK: krisialduak, jarrera desegokiak, istripuak...**

Protokoloa baloratu (101barruko telefonotik deitu/zuzendaritzan abisatu)

16 respuestas




**Hobetzeko proposamenak:**

Nire ustez, protokoloren bat ume konkretu batekin beharrezkoa izan da kurtso honetan (zuzendaritzara deitzea balio du momentuan), irakasle guztiok irizpide berdinak izanda. Halaber, gela bat izatea krisialdietarako ondo ikusten dut (agian espazioaren aldetik zaila da). Zaintza taula bat egin daiteke gela hori beti zainduta egoteko.
Nire kasuan oso positiboki baloratzen dut ikasgelatik zuzendaritzara deitu ahal izateko aukera zuzena (nire sorbaldak babeztuta sentitu ditut)
Zuzendaritzara deitu eta ez badago inor, ondo legoke eskuhartze zuzena ez daukaten irakasleen artean ordutegi bat zehaztea eta "krisialdi gela" batean irakasle baten presentzia bermatzea.

**6.-PATIO ZAINTZAK:** Zuzendaritzak irakasleen artean egiten duen banaketa (ordu libre gehien dutenen artean banatzea).

Patio zaintzaren egokitasuna (irakasle kopurua, kokapena, gertaeren kuedeaketa, jolasteko materiala, espazioen banaketa, arauak…).

17 respuestas




**Hobetzeko proposamenak:**

Ordu libren banaketaren inguruan hausnartu. Ordu libren inguruan ari garenean, ez da berdina esku-hartze zuzen bat programatu, antolatu edota ebaluatu kolektiba, laguntza, errefortzu edo bakarkako tutoretzarekin alderatuta. OSO GARRANTZITSUA! Ziurtatu errefortzuak, laguntzak, bakarkako tutoretzak betetzen diren. Izan ere, ez dira askotan betetzen eta ez dago horren gaineko kontrolik.

Alde batetik, umeek atzeko zonaldera eta ortura joateko nahia eta beharra egunero azaleratu dute. Baina, guk nahi-behar hori ukatu egin diegu, honi buruz hausnarketa egin beharko. Bestetik, egunero patio zaintzak egitea nekagarria iruditu zait. Askotan, arnasa hartzeko, txisa egiteko eta zerbait jateko 10 minutu izateko beharra sentitu dut.

Patioen eraldaketaren proiektua dela eta, aldatuko den alderdia dela uste dut, baina, 1. zikloan nahiko frustrantea izan da materialaren zainketa eskasa (gabonetan dena berriztu genuen eta batez ere, gure gainbegiratzea egon ez denean, material gehiena apurtu edo galdu egin da).

Patioaren eraldaketa proiektuarekin bat, zikloak nahastu eta mugimendu librea utziko nuke

Erositako materiala ez zen egokia.

Materiala hobeto saindu behar da.

Ikasle nagusienei euskaraz hitz egitea exigitu behar diegu eta ez egitekotan ondoriak ezarri.

Antolaketa adostea beharrezkoa: espazioak, arauak, materiala... HHn egunero dugu zaintza eta batzuetan (taldearen arabera) atseden txiki bat beharrezkoa da, umeekin kalitatez egoteko. Txandak antolatzea posible da egunero zaintza ez izateko? Edo 10 minutuko tarteak antolatzea gure artean...

**7.-OSASUN eta HIGIENE ohiturak:** Protokoloa baloratu

15 respuestas



**8.-ORDEZKAPENAK:** Zuzendaritzak irakasleen artean egiten duen banaketa (ordu libre gehien dutenen artean banatzea) Irizpidea baloratu.

Ordezkapenaren jakinarazpena (sarreran jartzen orria)

Ordezkapena egin ahal izateko informazioa (irakasleak utzi behar duen informazioa, materiala...).

17 respuestas




**Hobetzeko proposamenak:**

Ordu libren banaketaren inguruan hausnartu. Ordu libren inguruan ari garenean, ez da berdina esku-hartze zuzen bat programatu, antolatu edota ebaluatu kolektiba, laguntza, errefortzu edo bakarkako tutoretzarekin alderatuta. OSO GARRANTZITSUA! Ziurtatu errefortzuak, laguntzak, bakarkako tutoretzak betetzen diren. Izan ere, ez dira askotan betetzen eta ez dago horren gaineko kontrolik.

SARRERAN PAPEREAN JARRI BEHARREAN/ GAINERA EMAIL BIDEZ BIDALTZEA

Erosoagoa izango litzateke eskolako Whatsappetik abisatzea egun berean jartzen badira.

Ordezkapenaren jakinarazpenari dagoekionez, paperarena egokia ikusten dut baina bat-batekoak egon direnean Arrate pasatu behar zain da hori abisatzen. Beste eskola batzuetan eskolako watsap taldetik halakoak abisatu edo birgogoratzea bizi izan dut eta beste aukera bat izan ahal dela uste dut.

Ez daukat hobetzeko proposamenik

Irakasleen Whatsapp taldea egin ordezkapenak eta eguneko gauzak bidaltzeko

Ordu libre gehien dutenen artean banatzea ez da beti bidezkoa irakasle guztiek ez dutelako lan karga berdina.

**9.-SAREAren antolamendua: Irakasleak: Aldaketak egiteko, BBDOK eta Nobackup karpetak. / Ikasleak karpeta.**

Antolakuntza, dagoen informazioa, praktikotasuna...baloratu

17 respuestas



**Hobetzeko proposamenak:**

Sarea eta Drive izatea gehiegizkoa iruditu zait. Eskolako antolamendurako dena drive-ean izatea hobeagoa dela uste dut. (Ez dakit posiblea den espazio kontua dela eta)
Sitearekin egin den lana oso aproposa ikusten dut. Batzuetan gure sarean karpeta asko daude, lanak errepikatuta... eta zaila izaten da nahi duzun dokumentua erraz topatzea.
Ez daukat hobetzeko proposamenik
Ordezko batentzat izan daiteke pixka bat korapilatsua.
Garbiketa sakona egin behar da Aldaketak egiteko karpetetan.
Drive erabiltzea sustatu.

**10.-INFORMATIKA MANTENUA:** Ekipamendu informatikoa (ordenagailuak, pantailak, inpresorak). Kopurua, erabilpena, egoera, kokapena ...

Konpontzeko protokoloa (irakasle bakoitzak CAU-ra deitzea) baloratu.

17 respuestas




**Hobetzeko proposamenak:**

Irakasle gelako portatilak ez dabiltza batere ondo.
Ez daukat hobetzeko proposamenik
Ekipo eramangarrien kontrola (tablet, portatilak) zorrotzagoa izan behar da.

**11.-IRAKASLEEN ARTEKO INFORMAZIOA:** Irakasle gelako tabloia, Calendar eta Korreo korporatiboa. Eraginkortasuna baloratu

17 respuestas




**Hobetzeko proposamenak:**

Faltan bota izan dut telegram, whatsapp...talde bat izatea eskolako kontuak elkar trukatzeko. Bide hauetatik askotan komunikazioa azkarragoa eta zuzenagoa dela deritzot.

# 2.- IKASTURTEKO URTEKO PLANA

## 2.1 Ikasturteko planaren garapenean eragina izan duten aspektu edota faktoreak

Ikasturteko planeko helburuak aurrera eramateko BeA figura oso baliogarria izan da. Helburu batzuk ez ditugu guztiz bete denbora faltagatik eta horregatik jarraipena izatea ezinbestekoa izango da.

## 2.2 Datorren ikasturtean jarraipena izango duten urteko planaren aspektuak

Jarraitu beharko dugu zikloko programazioetatik mailakako zehaztapena lortzeko. Falta zaizkigun Ikas egoerak hurrengo ikasturtean egingo ditugu.

HH eta LHren artean egin den idazketa eta irakurketa hausnarketan pendiente geratu da idazketari buruz azterketa egitea, honekin jarraitu beharko genuke.

## 2.3 IUPko Helburuen lorpen maila eta garapena

| **1.- Hezkuntza Departamentuko Curriculum Berrira eskolako dokumentu guztiak doitu; IPC, Programazioak…**<br>Adaptar todos los documentos escolares al Nuevo Currículo del Departamento de Educación; PCC, Programaciones... | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **ARDURADUNAK** | **DENBORALIZAZIOA** | **EBALUAZIO ADIERAZLEAK ETA DATAK** |
| **1. BeA arduraduna formakuntzetan parte hartu.**<br>**2. BeA eskolara informazioa ekarri eta zuzendaritza taldearekin konpartitu.**<br>**3. Eskolako dokumentu guztiak Curriculum berriaren ikuspuntutik aztertu.**<br>**4. Eskolako dokumentuak aldatu, Amara berri sarearekin elkarbanatuz.**<br>**5. Eskola praktikari buruz eta Curriculum berriari buruz hausnartu.**<br>**6. Klaustroa Curriculum berriaren inguruan prestatu.** | Arduraduna:<br>Zuzendaritza Taldea<br>BeA arduraduna<br><br>Beste agenteak:<br>Irakaslegoa | Irailetik Abendura programazioak egingo dira. Epe horren barruan dokumentuak eguneratuko dira. | Eskolako dokumentuak berriztu dira.<br><br>Curriculum berria eta eskolako egoera aztertu da.<br><br>Lan taldean aritu gara.<br><br>Irakaslegoa Curriculum Berriaren inguruan prestatu dugu. |

| **HELBURUA: LORPEN MAILA** | **HOBETZEKO PROPOSAMENAK** |
|---|---|
| **IkB: Departamentuetan lan taldetan dokumentuak egokitu dira.**<br>**HH: Programazioak egokitu ditugu.**<br>**LH: Programazioak egokitu ditugu eta ikas egoerak mintegika bat.**<br>**ZT: programazioak egokitu ditugu zikloka, mailaka egitea faltako zen eta ikas egoerekin jarraitzea.** | **IkB: Ebaluazio konpetentzialaren inguruan hausnarketa eta nola eraman praktikara ondo aztertzea, sarean egin den lana sakontasunez aztertzen.**<br>**ZT: programazioak mailakako zehaztapenarekin egitea.**<br>**HH: Ikas egoerak egokitzea falta zaigu.**<br>**LH: Sarean egindako ikas egoerak gure eskolara moldatu.** |

## 2.- Haur Hezkuntzan mintegia sortu eta material didaktikoaren inguruan hausnarketa egin, berrizteko asmoz.

Crear el seminario de Ed. Infantil y examinar el material didáctico para renovarlo.

| JARDUERAK | ARDURADUNAK | DENBORALIZAZIOA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK ETA DATAK |
|---|---|---|---|
| **1. Ziklo bileretan mintegiak eta geletan dagoen materiala aztertu**<br><br>**2. HHko irakasleen artean beharrak konpartitu.**<br><br>**3. Mintegien inguruan hausnartu eta beharrezkoak diren materialak aztertu eta berriztu.**<br><br>**4. Beharrak adostu.**<br><br>**5. Zuzendaritza taldeari proposamenak luzatu.** | Arduraduna:<br>HHko koordinatzailea<br>Beste agenteak:<br>Irakaslegoa<br>Zuzendaritza Taldea | Irailetik Abendura egoera aztertu.<br><br>Urtarriletik Martxora proposamenak egin.<br><br>Apiriletik Ekainera hobekuntzak egin. | Proposamen desberdinak aztertzeko bilerak egin dira.<br><br>Lan taldean aritu gara.<br><br>Beharrak detektatu dira.<br><br>Materialen berrikuntza egin da. |

| HELBURUA: LORPEN MAILA | HOBETZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| **IK B.: Martxan ipintzea lortu da eta talde lanean aritzea.**<br>**Hainbat material berriztu egin da.**<br><br>**HH: Mintegia sortu da eta, batez ere, Amara Berri Sarean landutako edukiak landu dira: zientzia. (Lehen hezkuntzako 1. zikloarekin irakurketa-idazketa prozesua ere landu dugu).** | **IK B: lanean jarraitzea Sarearekin batera proposamen ezberdinak eta eguneratuagoak martxan ipintzeko (zientzia, arte…). Materiala berrizten jarraitzea.**<br><br>**HH: Materialak aztertu eta berriztu, antzerkiak, jolasak eta ipuinak,**<br>**Sortu den material berria biltegian ondo artxibatu.**<br><br>**LH: HH eta LHko 1.ziklokoak talde lanean jarraitzea.** |

## 3.- Digitalizazioa eskolan martxan ipintzea, Digitalizazio Plana martxan ipiniz eta irakasleon formakuntza estrategian txertatuz, B1 maila eskola mailan lortzea eta gure geletako dinamikan digitalizazioa txertatuz.

Poner en marcha la digitalización en la escuela, poniendo en marcha el Plan de Digitalización e integrando la formación del profesorado en la estrategia, consiguiendo el nivel B1 a nivel escolar e integrando la digitalización en la dinámica de nuestras aulas.

| JARDUERAK | ARDURADUNAK | DENBORALIZAZIOA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK ETA DATAK |
|---|---|---|---|
| **1. Eskolako Digitalizazio Plana martxan ipini.**<br>• **Proposamenak aurrera eraman.**<br>**2. Irakasleon formakuntza Digitalizazioan.**<br>**3. Hezkuntza Departamentuak planteatzen dituen berrikuntza eta digitalizazio formakuntzetan parte hartu.**<br>**4. Eskolako irakas-praktikan digitalizazioa txertatu.** | Arduradunak:<br>Zuzendaritza taldea<br>Digitalizazio batzordea<br><br>Digitalizazio arduraduna<br>Beste agenteak:<br>Irakaslegoa | Ikasturte osoan zehar.<br>1. Lehenengo hiruhilabetean<br>2. Ikasturtean zehar<br>3. Urtean zehar | Digitalizazio Batzordeak plana aztertu du eta martxan ipini du.<br><br>Beharrei lotutako erantzun teknologikoak planteatu dira.<br><br>Klaustroko %80k digitalizazio perfila lortu dute.<br><br>Formakuntza baloratu. |

| HELBURUA: LORPEN MAILA | HOBETZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| **IK B: Digitalizazio batzordea ez gara sistematikoki bildu.**<br>**Formazioan klaustroa inplikatuta egon da orokorrean.**<br><br>**BeA: Digitalizazio planean jasota zeuden hainbat jarduera burutu dira: irakasle berrien harrera digitala (SITE). Ikastolan erabiltzen den material pedagogikoaren errepositorio digitala ( Zientzia, Hizkuntza, Ingeles eta HHko SITEak sortu dira), gailu digitalak erabiltzeko protokoloa,...**<br><br>**HH: B1 eta B2 ubideak egin dira.**<br><br>**LH: Gehiengoak B1 eta B2 ubideak egin ditu.** | **IK B: Digitalizazio Batzordea modu sistematikoan bildu Talde pedagogikoarekin batera.**<br><br>**BeA: Ikasturte honetan sortu diren tresnak datorren ikasturtean ezagutzera ematea eta etapetan informazioa eta kontrastea jasotzea: konpetentzia digitalen irteera profila mailaz maila zehaztea, erabiltzen diren baliabide digitalen zerrenda…**<br>**HH: Ubideak ez dira HHrako egokiak izan.**<br><br>**LH: Digitalizazio ikastaroetan ikasitakoa piskanaka txertatzea.** |

| 4.- LH eta HH elkarrekin idazketa-irakurketa ikasketaren prozesuaren inguruan hausnarketa egin eta ildo bateratu bat adostea.<br>Estudiar cómo estamos trabajando el proceso de lecto-escritura en Ed. Infantil y Ed. Primaria para establecer una forma de trabajo más eficaz. | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **ARDURADUNAK** | **DENBORALIZAZIOA** | **EBALUAZIO ADIERAZLEAK ETA DATAK** |
| **1. Irakasleen arteko bilerak egingo dira ziklo bakoitzaren irakurketa eta idazketa egoera eta lanketa ezagutzeko.**<br><br>**2. Ziklo bakoitzaren irizpideak aurkeztu eta gainontzeko irakasleen dudak argitu.**<br><br>**3. Behin ziklo bakoitzaren irizpideak ezagututa, eskola mailan irizpideak eta ildoa bateratu**<br><br>**4. Jarraitu beharreko bidea argitu ondoren, idazketa eta irakurketa prozesua ziklo bakoitzaren ezaugarrietara egokituz**<br><br>**5. Funtzionamendua aztertu ostean, ildo bateratu bat adostu.**<br><br>**6. Funtzionamendua, erabilpena, baliabideak… txertatuta eta ezarrita utzi sarean. Modu horretan, hurrengo ikasturteetan berriak diren irakasleek argi izango dute.** | Arduraduna:<br>HHko koordinatzailea<br>LHko hizkuntza irakasleak<br>Beste agenteak:<br>Irakaslegoa<br>Zuzendaritza Taldea | Irailetik Abendura egoera aztertu.<br><br>Urtarriletik Martxora proposamenak egin.<br><br>Apiriletik Ekainera hobekuntzak egin. | Proposamen desberdinak aztertzeko bilerak egin dira.<br><br>Lan taldean aritu gara.<br><br>Beharrak detektatu dira.<br><br>Ildo bateratu bat markatu da. |

| **HELBURUA: LORPEN MAILA** | **HOBETZEKO PROPOSAMENAK** |
|---|---|
| **Ik B: lan taldean aritu gara eta beharrak detektatu dira. Ildo bateratua egitea lortu dugu HHtik LHra pasoa bermatzeko asmoz. Irakurketan zentratu gara.**<br><br>**HH: Lan-saioak egin ditugu elkarrekin; irakurketa prozesuarekin ia bukatu dugu baina idazketa falta zaigu. Baliabide desberdinak partekatu ditugu eta HHko lorpen maila irakurketa-idazketari dagokionez adostu dugu. Honez gain, HH2tik HH5era kontzientzia fonologikoa lantzeko dokumentua sortu da eta eguneko zein momentutan landuko den adostu da (2. kolektiban).** | **Irakurketa plana berrizteko beharra eta idazketari buruz hausnarketarekin jarraitzeko beharra.**<br>**HH:**<br>**Formakuntza behar dugu;**<br>• **ABSn nola lantzen den irakurketa-idazketa**<br>• **Irakurketa-idazketa prozesuaren inguruan.**<br>**Idazketa: HH eta Lhren arteko lotura zehaztu/landu.**<br><br>**LH: Materiala berriztu, antolatu,...** |

# 3.- Ikastetxearen funtzionamendu atalak

| ZIKLO BILERAK | | | |
|---|---|---|---|
| | **ALDERDI POSITIBOA** | **ZAILTASUNAK** | **HOBETZEKO PROPOSAMENA** |
| **H.H. ZIKLO** | Baliogarriak izan dira. | Hausnarketarako denbora eskaz.<br><br>Bilerak zehazteko zailtasunak, ordutegiak direla eta.<br><br>Koordinatzaileen arteko bilerarik/komunikazio formalik ez da egon. | |
| **L.H. ETAPA** | Baliagarriak izan dira. | Igerilekura joan diren irakasleak (3.zikloko koordinatzailea barne)berandu heldu dira bileretara ikasturte erdirarte. | Ahal den neurrian ziklo bilerak astearteetan (igerilekua) ez jartzea.<br><br>Ordutegiak ahalbidetzen badu "pedagogika" bilerak burutu zuzendaritza talde, HH eta LHko koordinatzaileekin, ondoren, informazioa ziklo/etapetara helarazteko. |
| **MINTEGIAK** | | | |
| | **ALDERDI POSITIBOA** | **ZAILTASUNAK** | **HOBETZEKO PROPOSAMENA** |
| **ZIENTZIA MINTEGIA** | Ik B: Lan taldean primeran egin da lan.<br><br>LH: Lan taldean primeran egin da lan. | | LH: Kurtso bakoitzean baloratu Ikasketa Burua presente egon behar duen saioa aurrera eramateko |
| **HIZKUNTZA MINTEGIA** | Ik B: lan taldean primeran egin da lan. | Ik B: aspektu asko ditugu pendiente eta lehentasunak markatu behar ditugu, lanari ekiteko.<br><br>LH: Saio gehiago behar dira lana aurrera eramateko. | Ik B: beharrak ondo detektatu eta lehentasunak markatu aurrera egiteko.<br><br>LH: Irakasle berriek formakuntza bat jasotzea sistemaren nondik norakoak ezagutzeko. |

| ORGANO KOLEGIATUAK | | | |
|---|---|---|---|
| | **ALDERDI POSITIBOA** | **ZAILTASUNAK** | **HOBETZEKO PROPOSAMENA** |
| **OOG** | Aurredeialdiak eta deialdiak denbora nahikorekin egin dira eta informazioa partekatu ere. | LH: Gurasoek erabakitzeko ahalmen handia dute. | Bertan hitz egindakoa irakasle guztien esku jartzea. |
| **KLAUSTROA** | LH: Arazoren bat izan denean konpontzen saiatu gara. | IkB: klaustrokide guztien iritziak jasotzea zaila da. | HH: Klaustroen dinamizazioa parte hartzailea izan dadin (lan taldeak, dinamika zehatzak…)<br><br>LH: Gai ordena garatuagoa izatea klaustrokideak aurretik iritzi batekin joateko. |
| **ZUZENDARITZA TALDEA** | ZT: Zuzendaritzan egin beharrekoak, zuzendaritza kideen artean ondo banatuta dago eta lana oso eraginkorra izan da.<br><br>Hala eskatzen zuten erabakietan, koordinatu gara irakasleekin, gurasoekin eta gainerako estamentuekin. | ZT: Eskolaren onerako martxan jartzen saiatu garen ekimen batzuk, ez dute harrera onik izan.<br><br>LH:Zuzendaritza taldea kohesionatuagoa egotea, baita klaustroarekin ere eta ez bakoitza bere partzelaz arduratzea. | ZT: Zuzendaritza taldearen bilera sistematikoak egitea astero.<br><br>HH: Erabakiak hartu baino lehen, denok jakinaren gainean egotea eta iritziak jasotzea.<br><br>HH: Lehentasuna ematea klaustrokideekin informazioa partekatzeari. |
| **EIGE** | ZT: Zuzendaritza eta EIGE-ren arteko koordinazioa oso eraginkorra izan da.<br><br>LH: diru laguntzarekin materiala erosi da. | | HH: Motxila moreko liburuak eta jolasak berriztea. |

| LAN TALDEAK | | | |
|---|---|---|---|
| | **ALDERDI POSITIBOA** | **ZAILTASUNAK** | **HOBETZEKO PROPOSAMENA** |
| **BEHATOKIA** | Ikasleek lotsa edo beldurrik gabe hartu dute parte eta asko hitz egin dute.<br><br>Ikasleek gelan galdetegia egin ahal izatea.<br>Orokorrean dena ondo: Bilerak egiteko maiztasuna, ikasleen parte-hartzea, galdetegiak, hartutako erabakiak eta nola gauzatu diren arazoak konpontzeko... | 2 eta 3 zikloko ikasle guztiek galdetegia gelan egitea.<br><br>Somatu ditugun elkarbizitza arazoei eman diegun erantzunak ez du eragin hadirik izan. Gatazkak edo arazoak askotan ez dira heltzen. | Behatokian Irakasle gehiago parte hartzea.<br><br>Behatokian somatzen diren elkarbitza arazoak konpontzeko, neurri eraginkorrak hartzea.<br>Hitz egin genuena. Hemendik aurrera, arazoak guztion artean gelan hitz egitea eta gero etortzen diren ikasleek kontatzea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Galdetegiak ikasle gehiagok erantzuten ditu. | | LH: 1.zikloko ikasleak egotea. Ikasleek betetzen dituzten galdera guztien emaitzak jasotzea ez bakarrik hobetu beharrekoak, gelan edo tutoretzetan lantzeko. |
| **AGENDA 2030** | Energia aurrezteko kanpaina, Egindako 3 kanpainak, Baratza, Ikasle batzuen lana.<br>Garrantzitsuak diren gaiak lantzeko bidea zabaltzen duela<br>Umeek parte hartu dutela eta proposamen interesgarriak egon direla. | Ekintza batzuk ez dira burutu nahiz eta konpromisoa hartu: energia aurrezteko 3 kanpaina, ibilbideen argazkiak eta azalpena eta konposta<br>Inplikazioa. Lehenengo eta behin nire aldetik, bileretara joan eta ezer gutxi gehiago egin dudalako, eta uste dudalako garrantzia eman behar zaiela lan talde hauei merezi den moduan tratatuz.<br>Azken hilabeteetan, ez dugu lortu ikasleek gogekin parte hartzea. Eta beste alde batetik, egiten duguna ez dute familiek ezagutzen. | HHrako egokitzea; baratzean parte hartu nahi da.<br><br>Implicación por parte del ayuntamiento para poder reciclar en la ikastola.<br>Ayuda por parte del ayuntamiento para limpiar y recoger los residuaos de la huerta.<br>Badakit komunikazioa dagoela, baina gehiago, argazkiak eta bideoak erabiltzen.<br>LH: Gehiago sistematizatu eta egituratu behar da (jarraipen gehiago,datak jarri,...) |
| **BAT TALDEA** | Eskolan izan ditugun jazarpen protokoloetan, modu eraginkorrean lan egin dugu. | | LH. BAT postontzia azaldu ondo ikasleei zertarako den eta filtroak egin. Gai esanguratsuak eraman eta tratatu. |
| **HEZKIDETZA** | ZT: Ikasturtean zehar kanpainak prestatu eta burutu egin dira.<br><br>LH: Lana aurrezten digute | ZT: denbora falta eta udaletxeko proposamena berandu iristen da. Taldean irakasle tutoreen presentzia oso txikia izan da. | HHra egokitzea eta denbora gehiagorekin prestatzea.<br><br>LH: Batzordeak hartzea proiektuaren ardura, tutoreekin batera eskuhartze zuzena. Irakasleei lana errezteko eta ondo lantzeko proposamenak edo eginbeharrak denboraz planteatu. |

**PERTSONA BAKARREKO KARGUEN FUNTZIONAMENDUA**

| | **ALDERDI POSITIBOA** | **ZAILTASUNAK** | **HOBETZEKO PROPOSAMENA** |
|---|---|---|---|
| **ZUZENDARIA** | Oso inplikatuta baratzearekin eta bere lanarekin | | |
| **IKASKETA BURUA** | Inplikatua eta langilea. | LH.Lan karga handia du jardunaldi erdia izana | LH: Delegatu behar ditu ardura batzuk (lan taldea eginez koordinatzaileekin) |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Egin beharrak modu eraginkorrean egin ditu.<br><br>LH: Bere lanarekin inplikatua eta langilea | | |
| **IDAZKARIA** | Eskuragarri eta laguntzeko prest.<br><br>Egin beharrak modu eraginkorrean egin ditu. | | |
| **BERRIKUNTZA ARD.** | Laguntzeko prest beti.<br><br>LH:Digitalizazio formakuntzetan oso ondo. Bere adibideak eskeini ditu,... | LH: Hainbat gauzetan bere falta somatu dugu, HHn egon delako eta ezin da bi lekutan egon. | LH: Mintegietan parte hartu beharko luke . |
| **HH KOORDINATZAILE** | Pozik gaude egindako lanarekin | | Pedagokoka batzortea sortzea koordinatzaileekin. |
| **LH 1Z KOORDINATZAILE** | Ondo lan egin du | | Pedagokoka batzortea sortzea koordinatzaileekin. |
| **LH 2Z KOORDINATZAILE** | Ondo lan egin du | | |
| **LH 3Z KOORDINATZAILE** | Ondo lan egin du | | |
| **BAT ARDURADUNA** | Bat taldean lana aurrera eramaten lagundu egin du. | Zaila da protokolo bat zabaltzen denean ardura hartzea, praktikan zuzendariaren erantzukizuna denean. | |
| **IK. ONGIZATE KOORD.** | Egin beharrak modu eraginkorrean egin ditu. | | |
| **AG 2030 ARD** | Ikasturte hasieran aurreikusitako zeuden ekintzak aurrera eraman ditut. | | |
| **HEZKIDETZA ARD.** | Egin beharrak modu eraginkorrean egin ditu. | IkB: denbora falta talde osoarekin biltzeko. | IkB: taldeak kurtso hasieratik ikasturteko ekintza guztiak antolatzea edo zirriborroak planteatzea, kronograma bat eginez. |
| **BESTERIK** | | | HH: euskara batzordea eta euskararen erabilerari lehentasuna eman behar zaie.<br><br>HH: Batzordeetan partaidetzari, orokorrean, buelta bat eman behar zaie. |
| | | | |

## 4.- Ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa

| IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUARI BURUZKO ASPEKTUAK | ALDERDI POSITIBOA | ZAILTASUNAK | HOBETZEKO PROPOSAMENA |
|---|---|---|---|
| Ikasgai desberdinak: Erabilitako antolakuntza, baliabideak, materialak, espazioak, ekintzak, baliabide digitalen erabilpena (protokoloa),… | LH: Egitura, AB sistema indarra hartzen hasi da eta aurrera joango da hurrengo ikasturtean<br><br>IkB: materiala antolatzea oso baliogarria eguneroko funtzionamendurako (garbiketa eta SITE sortzea). | | LH: Materiala berrizten jarraitzea.<br><br>Irakasleentzako informazioa: Karpeta larrosak sortu departamentuen funtzionamendua azaltzeko.<br><br>IkB: gelako dinamiketan digitalizazioa txertatzeari buruz hausnarketa egitea |
| Laguntzak (mintegi bereko 2 irakasle gelan) | LH: oso ondo baloratzen dira.<br><br>IkB: oso lagungarriak dira irakasle berrientzat eskolaren funtzionamendua ikasteko. Bestalde, 2 irakasle gelan egoteak arreta hobea eskeintzen du. | | |
| HLPB erantzuteko esku-harmena | ZT: Aholkulari eta zuzendaritzaren arteko koordinazioa eraginkorra izan da. | | Aholkulari, Pt eta Hezitzaileen artean koordinazioa egotea<br><br>LH ACIdun ikasleentzat moldatu behar den materialaren arduta PT eta irakasleek hartu behar dute.<br><br>Ikasleen arabera HLPB ikasleak, zenbait lanerako, gelatik ateratzea lan sistematikoa egiteko. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Errefortzuak: LH mate - euskara | Ondo funtzionatzen dute.<br><br>IkB: 1 zikloan materiala adostu da. | | 2 zikloako mate eta hizkuntzako errefortzuetako denbora luzatzea.<br><br>IkB: 2 eta 3 zikloan irakurketa eta ulermena lantzeko errefortzuak izatea baloratu beharko genuke. |
| PT irakasleen esku-harmena gelan. | Ondo baloratzen dira<br><br>IkB/PT: tutoreekin komunikazioa oso eraginkorra da. | IkB: batzuetan gurasoekin bileretan denbora faltagatik ezin izan naiz egon. | |
| EAE (hezitzaileak) esku-harmena gelan. | Ondo baloratzen dira<br><br>IkB /PT: malgutasuna izan dute beharretara egokitzen. | | |
| Hedabideak: irratia, telebista, web, egunkaria eta hizkuntzen horma-irudia. | Telebista, web, egunkaria eta Hizkuntzen horma irudia, aurrera eraman dugu ikastrurte osoan zehar. | 3 zikloan, egun askotan ez dugu berriemalerik izan. | Berriemale eta teknikarien ordena ezartzeko protokoloa hobetzea.<br><br>LH: Teknikariarena sistematizatzen hasi gara eta horrela jarraitzea<br><br>Hedabideen kudeaketan egin diren aldaketen informazioa klaustrora helaraztea.<br><br>Hedabideen arduradun bat jartzea<br><br>Lanak aberasgarriagoak izan daitezela, garrantzi gehiago ematea. |
| Liburutegiak: HH eta LH | IkB: 1 zikloan liburutegia antolatzea eta sistematizatzea lortu dugu. | | HH: Berrizteko beharra dago. Eta dauden liburuen egokitasuna aztertu.<br><br>LH.Liburuzain funtzioa ikasle bati ematea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | Liburutegia indartu, sistematizatu (adb. hilabeteko lehen astelehenetan liburu bana hartu eta patiora irakurtzera joan) |
| Tutoretzak/banakako tutoretzak | Balorapena positiboa da. | | LH: 1.zikloan jartzea |
